

Korrika Martin Ugalderekin

Joxe Azurmendi

Euskaldunon Egunkaria, 1993-03-25.

Hainbeste jendek mereziko luke eta pena da denen izenak ez dagoela esaterik ere. Udaberria bezala da: neguondoan saratsa argiz mugitzen hasten da, loratzen otea, hostoa, berdetzen mendiko belar higatua, Euskal Herri osoa. Lehentxeago, lurralde guztia mugimenduan jarri da hanka-zarata batean, milaka lagun korrika, udaberria esnatu eta zabaldu nahita.

Euskalduna mendietan korrika dabilen piztia bezala deskribatu izan digute. Gero sarri profetizatu izan dute, animalia jenero bitxi hori laster galtzeko zegoela, euskalduna. Baina, korrika segitzen du bizi-bizi mendietan piztiak.

Eta hainbeste jende da korrika horretan meritoz betetzen dena, denak ez bait dago aipatu eta ohoratzerik. Denon izenean Martin Ugalde ohoratuko dugu: animalia noblea, izpiritu ederra.

Korrika honetan –Martin Ugalde aspaldion aritu zaigu korrika luzea korritzen beti aurretik– neska zein mutil, zahar hala gazte, denok gara irabazle txapeldun. Lasterketa hau ez bait da inoren kontra, bai denon alde.

Salbu: geure erretxin ipurtestu konplexuti batuk (beti egoten dira), edo euskalduna soportatzen ez dutenak, hainbat gutxiago korrika badabil.

Beste denok, etxeakoandreak, alfabetakumeak, eskolaitonak, idazkurleak, ahal dugun moduan euskaraz korritzen dugunok eguneroko gure korrikatxo nahasia, denok aurkitzen dugu geure burua Martin Ugalde ondraz ordezkatuta, Tuteran hala Baionan, eta Besainen bezala Agurainen eta Santurtzin. Denok sentitzen gara ohoratuak eta guztiok pozten gara guztion festa honetan Ugalderekin.

Ugalde baitan euskalgintzaren ezaugarriarik positiboenak eta maitagarrienak ospatzen ditugu inkarnatuta: irekitasuna, gozotasuna, baina iraupena. Estetika eta borroka. Dohain altuak eta entregu apala. Mundu-zabaltasuna kulturaren eta atxekitasuna bihotzean irme lurrari. Euskaltzaletasuna politikaren gainetik. Muga txikien gaindikotasuna. Abertzaletasun zaharraren eta berriaren segida. Ausardia eta sakrifizioa: batere gusatu ezin zitzaizkion arazoetan ere buru-belarri sartzeko, euskarak hala behar zuela ikusi duenean. *Egunkarian* esate baterako. Jende arras diferentearekin kolaboratzeko gaitasuna. Sentsibilitate ezberdinen armonia. Kontraesanak eta teinkak ongi ezagutu baina ezikusteko handitasuna, hots, bere-bere izpirituaren dotorezia pertsonal hori, arimako elegantzia.

Asko eta asko dira, euskara bizi dadin lanean, meritoz betetzen ari direnak, ez bait dago haien guztien izenak esaterik ere. Martin Ugalderekin irudi eta eredu, Korrikak, hots, guk denok, euskararen korrikalari eguneroko guztiok, euskalgintza osoari eta Martini, omenaldi bat ematen diogu eta lezio bat hartu. Eskerronez.